

Delako "furia española"

Hondarribia, 38. zk., 1990-04: 4.

Belgikatik idazten dizuet oraingoan.

Brusselan, metroa eta autobusez gain, tranbeak dabiltza oraindik "tin-tin"ka, eta geltokian zai nagoela, badaezpada ere nire ondoan suertatu den gizaseme bati galdetu diot, ea etxeraino eramango nauena, 54a, bertan gelditzen den.

Baietz, erantzun dit adi, bertara etorriko dela, eta bruselarrak ohizkoa ez duen irekitasunez galdetu egin dit, ea kanpotarra naizen. Baietz nik. Ea espainola naizen. Beno, egin dizkiot ohizko oharrak, eta ulertu du ongi, flamandarra baita bera; hala ere esan dit:

"Bai, "la furia española"..."

"Futbola gogoko duzu", esan diot.

Orduantxe tranbea; igo gara eta elkarren ondoan eseri.

"Barka, zer galdetu didazu?"...

"Ea futbola gogoko duzun"...

"Ez, ez gehiegi"...

"Nola Anberesko partidu famatu hura aipatu didazun"...

"Hori, hori!... anekdota bat da, gizona!, eta begira-begira gelditu zait, nire jarrera neurtzen bezala.

"Gertatzen da", esaten diot, "euskaldunak bazirela ekipoan, eta hondarribiar bat edo beste ere bai"...

"Tira", esan dit, "neuri ez zait futbola hainbeste axola!, historiaz ari nintzen zuen Karlos kinto enperadoreak hemen 1520an emandako aginduz arerioak ziren gizonak ezpataz, emakumeak amildegietatik bera boteaz hiltzea agindu zuen, eta laster hasi ziren sutetan erretzen ere... Eta esan iezadazu Alba-ko Duke basatiak aginpean zituen 60.000 soldaduak zu orain zauden Brusselara nahi zuten guztia egitera ekarri zituenean zer iruditzen zaizun! A!!

"Aizu, barka, baina Albako Dukea ordurako sartu zen su eta gar gure Iruñean (1512)".

"Bai, konforme, baina neuk esan nahi dizudana hau dela gugana etorri zen 'furia española' hural; eta lehen bestetan egin zuten bera egin zigutela hemen, hango absolutismoa ezarriaz".

"Argi dagi hori"...

"Ulertzen didazu, beraz".

"Oso-osorik, gizona".

"Beno, hori da adierazi nahi nizuna, euskaldunak, bestalde begiko ditut... Hala ere, ez zaitut bada ETako honetako bat izango!..."

Eta niri so berriz!... Baina jeiki da, heldu da Waterloo kale nagusira, lehenengo zenbakietara, eta agurtu nau barrez... Neu, kale bereko goi aldean bizi naizenez, aurrera

jarraitu dut tranbean. Orain, gertaerak suspertuta. "Irakurri behar dizkiat belgarrek historia honetaz idatzi dituztenak".

Eta hara dagoeneko lana aurkitu!

Lehengo lantxoa, *Hondarribia* hilerokorako.